

BALOREZKO PROPOSAMENA

- **Zer behar edo arazo konpontzen dugu:**

Gure proiektuak hainbat arazo konpontzen ditu, ez bezeroentzat soilik; baizik eta baita ikasleentzat eta ikastolarentzat ere. Orokorrean, bi ekintzek bezeroei ikastolan bertan, ikastolatik kanpo eskeintzen diren zerbitzu bat eskeintzen du; beraz, gertutasuna da konpontzen duen arazo nagusia. Ikasleei, lan mundua ezagutu eta ikasbidairako finantziazioa lortzeko bide erraza da, eta ikastolak, irakasleen bidaia finantzatzeko erabil ditzake eskuratutako irabazien %-a. Modu honetan, proposatutako hiru segmentuak dituzten onurak.

Ekintza partikularretara joz gero, merendoletan bezeroei lasaitasuna eta gertutasuna eskeintzen die. Hau da, alde batetik, ikasleen arteko gertutasuna errazago lortzen da eta adin ezberdinetako ikasleen arteko elkarbizitza bermatzen da. Horrez gain, gurasoentzat lasaitasuna transmititzen du ikastolan bertan ospatzea urtebetzeak, ikastolaren eremutik irteten ez direlako eta haiek denbora guztian erne egon behar ez direlako. Gainera, ikastolaren eremua izateak haurrak alde batetik bestera mugitzea ekiditen du, eta txikipark-etara haurrak eramateko autobusak alokatzeko kostuak murrizten ditu. Aipatu beharra dago, guraso askok nahiago dutela ikasbidaia finantzatzeko jardueretan parte hartu, nahiz eta jarduera arruntak baino garestiagoak izan; izan ere, diru hori zertara bideratuta dagoen argi dagoelako eta horren erabilera txarra gertatzen ez dela bermatzen delako. Ikastolak, autobusen eremua kanpoko autobusez ez betetzea beramtzen du ekintza honen bitartez eta aldi berean irakasleen bidaia finantzatzeko dirua lortzen du.

Tabernan aldiz, gurasoentzat gertutasunak bultzatzen ditu gure zerbitzua erabiltzea. Haien haurrak eskola kiroleko partiduetan dauden bitartean, haiek kafe bat hartzeko edota pintxo bat hartzeko erabiliko lukete. Horrez gain, haurrak partiduak jolasten dituzten bitartean kantxetatik paseatzen diren ikasleek ere saltzen dituzte pintxoak, freskagarriak, patatak, etab. Ondorioz, gurasoentzat modu erraza da haien haurrak ikusten dituzten bitartean ez aspertzeko. Gainera, ate irekiak daudenean modu aparta da, ikastolatik kanpo datozen gurasoek ikastola ikusi eta gazteek egiten ditugun ekintzak ikustea eta ikastolaren irudi ona zabaltzen lagun dezake eta ikastolaren ikasle perfila erakusten du.

- **Zer bereizten gaitu eta zergatik egongo da bezeroa guri ordaintzeko prest:**

Oro har, bezeroak guri ordaintzeko arrazoia, diru hori zertarako erabiltzen denaren arrazoia da. Gazteek eskeintzen dugun zerbitzua ordaintzen badute, finantziarioa lortzeko helburua argi dago. Horrez gain, gertutasunak bai guraso arduradunekiko baita ikasle gazteenekiko, merendolen kasuan, oso gertukoa da eta bezero eta zerbitzua eskaintzen dugunen artean dauden ezaugarrien arteko berdintasunak desberdintasunak baino gehiago dira. Tabernaren kasuan aldiz, gertutasuna da lehiakideekiko desberdintzen gaituena, baina gurasoei haien haurrak jolasean dauden bitartean zerbitzu hau eskeintzeko aukera bakarra da. Ikastolako eremuan eta haien haurrak zein hamaiketako jatea aldi berean eskeintzen dien taberna. Gainera, ez da beharrezkoa taberna gunera joatea; izan ere, tarte batean, ikasleak kirola egiten duten gunera gerturatu eta freskagarriak, tortilak, etb. eskeintzen dituzte.